



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

OBRA

***OTARRE JAITSIERAREN BERRITZEA
ERREGULATZAILETARA ARTE. II FASEA***



IBARRA

Mayo - 2020 - Maiatza



AURKIBIDEA

Orria

1. MEMORIA	3
1.1 AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA.....	4
1.2 OBREN DESKRIBAPENA	5
1.3 DISPONIBILIDAD DE TERRENOS	9
1.4 UREZTATZE AHOEN ETA SUTE AHOEN INSTALAKUNTZA	9
1.5 LANEN PLANGINTZA.....	10
1.6 AURREKONTUAK	10
1.7 OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA	10
1.8 HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA	10
1.9 PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK.....	11



1. MEMORIA



1.1 AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA

Ibarrako ur hornidura eta saneamendu sareen kontserbazio eta mantentze lanen barnean, garrantzitsutzat hartzen da zuntz zementuzko hoditeriaren berritze jarraitua. Horrez gain, material horretakoak ez diren, baina beren antzintasunagatik zaharkiturik edota hondaturik dauden hodien berrikuntza ere aztertzen da.

Zehazki, Emeterio Arrese eta Euskal Herria kaleen ur hornidura sarea berritzeko beharrezko diren ekintzak hartzen ditu kontuan proiektu honek. Lan hauek aurretiazko fase baten jarraipena dira eta Otarre ur biltegia eta hiribilduko erdigunearen arteko sare nagusiaren berrikuntza osatuko du.

Lanak garrantzia txikiagoko ur hornidura eta saneamenduko beste tarte batzuen berrikuntzarekin osatzen dira.

Proiektu honen justifikazioa bikoitza da:

- Ur hornidura sareen antzintasuna dela eta, proiektuaren xede diren tarteetan gerta daitezkeen matxurak, galera jarraituak eta hornidurekiko eraginak gutxitzea.
- Saneamendu sareen berrikuntza jarraituan aurrera egin eta, hauen erabilerak bereiztean, izaera separatiboa duen sare bat osatzea.

Proiektatutako hobekuntzek, 656 metro linealeko guztizko luzerako hodi berrien instalakuntza aurreikusten dute, ondorengo material eta diametroetan banaturik:


	MATERIALA ETA DIAMETROA	LUZERA
UR HORNIDURA	FD Ø 200	184 m.l.
	FD Ø 100	265 m.l.
	PEAD Ø 75 mm.	14 m.l.
	PEAD Ø 63 mm.	82 m.l.
SANEAMENDUA	PVC Ø 400	12 m.l.
	PVC Ø 315	73 m.l.
	PVC Ø 250	26 m.l.



1.2 OBREN DESKRIBAPENA

UR HORNIDURA

- Ur hornidura sare orokorraren berrikuntza Emeterio Arrese eta Euskal Herria kaleen artean. Lehendikako zuntz zementuzko Ø 200 mm hodia ezabatuko da. Berrikuntza burdinurtu nodularrezko DN 200 mm hodiz egingo da, zeina kokapenez aladatuko den, jabetza pribatuko orubetan kokatua egotetik, ia osotasunean bide publikoetan kokatzera pasaz.



- Altzairu galbanizatuzko hartuneen berrikuntza Euskal Herria kalean. Lehendikako hartuneen berrikuntza 49, 51 eta 53 zenbakietan.





- Altzairu galbanizatuzko sare orokorraren berrikuntza San Kristobalen. Ur hornidurako sare orokorraren berrikuntza Aranzazu Gure Ama kalean. Burdinurtu nodularrezko DN 100 hodi batek lehendikako altzairu galbanizatuzko DN 50 mm-koa ordezkatzuko du.




SANEAMENDUA

- Saneamenduko sare orokorraren berrikuntza Uzturre auzenean. Lehendikako ur beltzen hodia ezabatuko da, hormigoizko DN 300-ekoa, PVC-zko 315 mm-koa instalatuz.



- Erabileren banaketa Ibai-Gain kalean. Egungo euri uren kolektorea interzeptatu egingo da ur beltzen sarearekiko duen konekzioaren aurretik. Euri urak ibaibidera bideratuko dira.





Zangen irekitze lanek errepideetan zoladura asfaltikoaren eta espaloietan lauzen eraispena barneratzen dituzte. Jarduketa eremuaren mugetan beharrezko diren ebaketak egingo dira zoladuretan ebakigailu bidez. Era berean, beharrezkoa izango da espaloietan eta bideen arteko pasaguneetan egungo zintarriak eta arekak ezabatzea.

Hodien instalakuntzaren aurretik, konexio puntuetan dagozkien hobiak egingo dira beharrezko diren piezak kokatu ahal izateko nahikoa leku dagoela egiaztatzeko asmoz. Lan hauek, ur hornidura eta saneamendu sareen berrikuntza obra bati dagozkionez, berreziki esanguratsuak dira balizko desbideratze, lerrokadura aldaketa edo sakonera aldaketen beharrak aurreikusteko.

Ur hornidura zangak bideetan zein espaloietan exekutatuko dira eta 1,20 m-ko batazbesteko sakonera izango dute. Hauetan hodi berriak koaktuko dira, zeina 15 cm-ko hareazko geruza baten gainean eta azpian kokatuko dira.

Obren hasieran jabetzaren mugaren ondoan lehendikako hartuneen lokalizazioa burutuko da, zeina behin identifikaturik, behin behinean estalita geratuko diren behin betiko lotura gauzatu arte.

Behin sare berria instalatuta, frogatu eta desinfektatu egingo da, jarraian tarte bakoitzeko pieza guztien eta lehendikako hartuneen loturak eginez, obrak eragindako abonatuak sare berritik hornituak izatera igaroko direlarik.

Saneamenduari dagokionez, PVC-zko Ø 315 y 400 mm-ko sare berri bat instalatuko da. Zangen sakonera aldakorra izango da, orokorrean 1,5 m baino gutxiagokoa lehendikako sareen duten kokapenera egokituz. Bideetan eta espaloietan exekutatuco dira.

Zangen betetzea harrobiko materialekin egingo da. Trinkoturiko betelanaren gainean hormigoizko lauza bat exekutatuco da, 15 cm-koa espaloian eta 20 cm-koa bideetan. Honen gainean inguruaren arabera lauza edota asfaltuzko zoladura birjarriko da.

Uzturre ingurua, udaletxeak aurreikusitako urbanizazio lanen zain, behin behineko hormigoizko akabera bat uztiko da oinarritik polietilenoazko lamina batez bereizirik, modu honetan etorkizunean geruza hau kentzea erraztuz.



Erregistro putzuak hormigoi armatuzkoak izango dira, metro 1 baino diametro txikiagoarekin. Erregistro eta hartune kutxatilik, hormigoiz eginak, erabilera eta leku erabilgarriaren arabera dimentsio aldakorrak izango dituzte.

Laburbilduz, lanen nagusiko ondorengoan datzate:

- Zangen hondeaketa eta betelana.
- FD Ø 200 eta 100 mm-ko eroanbide nagusien, PE Ø 75 eta 63 mm-ko hartuneen eta balbula, pieza berezi, etab. instalakuntza.
- Saneamenduko PVC Ø 400, 315 y 250 mm-ko eroanbideen instalakuntza.
- Fabrika obren exekuzio edota berritzea.
- Zoladuren eraispena eta birjartzea.

Tarteak amaitzen joan ahala, birjartzeari, behin behinekoa edo behin betiko kasuaren arabera, eta eragindako eremu guztien garbiketari ekingo zaio.

AFEKZIOAK

Obra honetan ondorengo afekzioak aurreikusten dira:

- Ibilgailuen eta oinezkoen trafikoarekiko afekzioak: Ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioari edozein neurritan eragiten dioten jarduera guztiak, obra hasi aurretik, zuzendaritza fakultatiboari, udal teknikariei eta Udaltzaingoari eskatuak eta hauekin adostuak izango dira.
- Beste zerbitzu batzuekiko afekzioak: Beste zerbitzu batzuen gaineko afekzioei dagokienerako, Memoria honen 2. Eranskinean dago.

LAN BEREZIAK

Obra honetan ez da lan berezirik edo gauzatze-sistema ezohikorik aurreikusten.



1.3 **DISPONIBILIDAD DE TERRENOS**

Sare berriak diseinatzean, irizpide orokor gisa planteatu ohi da, kanalizazio berriak sareko maniobrak erraztu eta, ahal den neurrian, jabe pribatuei kalteak eragitea sahiesten dute lur publikoen, udal-bideen eta sarbide libreko eremuen azpian kokatzea.

Bigarren irizpide bat, sare berriak ordeztzen diren eta zortasuna duten sareen ondoan kokatzea da.

Kasu honetan, ez da posible irizpide orokor horiek guztiz betetzea, DN200 hodiaren azken tartean, Euskal Herria kalearen ondoan, beharrezkoa izango baita jabetza pribatuetara sartzea. Hori dela eta, eragindako lursailen titulartasuna identifikatu eta beharrezko pasabide baimenei eta negoziazioei dagozkien kudeaketak udalak burutzeko beharra adierazten da.

1.4 **UREZTATZE AHOEN ETA SUTE AHOEN INSTALAKUNTZA**

Ureztatze ahoak

Ur horniduraren berrikuntza proiektu honetan, lehendikako ureztatze ahoen ezabapena aurreikunten da. Udalak unitateren bat jartzea beharrezkotzat joko balu, Gipuzkoako Uraki jakinarazi beharko dio obrak hasi aurretik.

Sute ahoak

Udalak unitateren bat jartzea beharrezkotzat joko balu, Gipuzkoako Uraki jakinarazi beharko dio obrak hasi aurretik, kokapena eta modeloa (zutabekoa edo espaloikoa) adieraziz.



1.5 LANEN PLANGINTZA

Obra honen exekuziorako 16 asteko epea aurreikusten da.

	1 HILABETEA				2 HILABETEA				3 HILABETEA				4 HILABETEA			
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
ZUINKETA	■															
HOBIAK ETA ERAISPENAK	■	■														
UR HORNIDURA SAREA		■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
SANEAMENDU SAREA					■	■	■	■	■							
FROGAK ETA LOTURAK				■						■						■
BIRJARTZEAK						■					■				■	■
ERREMATEAK															■	■

1.6 AURREKONTUAK

Gauzatze Materialaren Aurrekontuaren zenbatekoa BERREHUN ETA HAMAZAZPI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMOKOA (217.241,66 €) da.

Kontrata bidezko Gauzatze Aurrekontuaren zenbatekoa BERREHUN ETA HIRUROGEITA BI MILA ZORTZIREHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMOKOA (262.862,41 €) da, B.E.Z.a barne.

1.7 OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA

Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana” Memoria honetako 1. Eranskinean dago.
Oinarrizko azterlana urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua aplikatuz idatzi da.

1.8 HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA

Hondakinen Kudeaketa Azterlana, Memoria honetako 3. Eranskina, Eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aplikatuz idatzi da.



1.9 PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK

Proiektua ondorengo dokumentuez osatua dago:

- | | |
|--------------|---|
| 1 Dokumentua | MEMORIA |
| | <i>Memoria</i> |
| | <i>1. Eranskina - Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana</i> |
| | <i>2. Eranskina - Eragindako Zerbitzuak</i> |
| | <i>3. Eranskina – Hondakinen Kudeaketa Azterlana.</i> |
| 2 Dokumentua | PLANOAK |
| | 1. Kokapen planoa |
| | 2. Ur hornidurako Egungo eta Proiektaturiko egoeren oinplanoa (3) |
| | 3. Saneamenduko Egungo egoeraren oinplanoa |
| | 4. Saneamenduko Proiektaturiko egoeraren oinplanoa |
| | 5. Korapiloen Ataltze planoa (2) |
| | 6. Zanga Ereduen planoa (2) |
| | 7. Ur hornidura Xehetasunen planoa (3) |
| | 8. Saneamendu Xehetasunen planoa (2) |
| 3 Dokumentua | BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA |
| 4 Dokumentua | AURREKONTUA |

Donostia, 2020ko maiatza

Gipuzkoako Urak, S.A.
Gipuzkoako Ur Kontsortzioa